



60ra jaitsi da COVID-19a daukaten pertsona kopurua adinekoentzako egoitzetan; hau da, gaixotasunaren gailurrean baino sei aldiz gaixo gutxiago dago

Guztira, egoitza zentroak erabiltzen dituzten 357 adineko eta 37 desgaitu sendatu dira koronabirusetik

Ez da ez heriotza gehiago ez kutsatu gehiago izan azken zortzi egunetan

Gasteiz, 2020ko maiatzaren 19a. Maiatzaren 17an egin den datuen azken eguneratzean, berriro jaitsi da Arabako adinekoentzako egoitzetan COVID-19az kutsatuta dauden pertsona kopurua: guztira 60 egoiliar daude gaixorik, joan den ostiraleko jarraipen txostenean baino 15 gutxiago. Koronabirusaren ondorioz positibo eman duten pertsona kopurua sei aldiz txikiagoa da pandemiaren gailurrean, Arabako egoitzetan, apirilean, erregistratutakoa baino.

Egoitza zentroak arduratzen dira koronabirusa daukaten pertsona gehienak zaintzeaz (56), eta pertsona horietarik 4 ospitaletara bideratu dituzte. Guztira dauden kasu positiboetatik 30 Araban dauden zentro pribatuen erabiltzaileak dira, eta beste 30 foru egoitzetan bizi dira.

Era berean, gero eta pertsona gehiago ari da sendatzen koronabirusetik; hain zuzen ere, 357, azkeneko eguneratzean baino 14 pertsona gehiago. Azken orduetan, ez da kutsatu gehiagorik egon.

Zortzigarren egunez jarraian, ez da jakinarazi heriotzarik. Osasun krisia hasi zenetik, kontabilizatu da adinekoentzako egoitzetako 140 erabiltzaile hil direla egoitzetan eta ospitaletan. Haietatik 72 zentro pribatutan bizi ziren, beste 66 foru egoitzetan, eta gainerako 2ak 20.000 bizilagun baino gutxiagoko udalerrietako etxebizitza komunitarioetan.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Desgaitasuna duten pertsonen egoitzetan ere berdin gertatzen ari da, gehiago baitira gaixotasuna gainditu duten egoiliarak (37) –aurreko eguneratzean baino hamar gehiago– eta gutxiago koronabirus kasu positiboak (14).